


Nº 6. ZB // MAYO 2021 MAIATZA

# BULETINA EL BOLETÍN

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA  
FAKULTATEA/FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y  
TRABAJO SOCIAL



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LAN HARREMAN  
ETA GIZARTE LANGINTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE RELACIONES LABORALES  
Y TRABAJO SOCIAL



## Edukia

<b>DEKANOAREN AGURRA.....</b>	<b>2</b>
<b>1.-Angel Elías Ortega dekanuari elkarrizketa .....</b>	<b>3</b>
<b>2.-Fakultateko berezko titulazio berriak: .....</b>	<b>4</b>
<b>GAINBEGIRATZEA GIZARTE EKINTZA TESTUINGURUETAN ...</b>	<b>4</b>
<b>GENEROA, MASKULINITATEAK ETA GIZARTE EKINTZA .....</b>	<b>4</b>
<b>3.-Jardunaldiak eta hitzaldiak Fakultatean .....</b>	<b>5</b>
<b>4.-Fakultateak BerrAktibatu+ programan parte hartzea .....</b>	<b>7</b>
<b>5.-EAEko oinarrizko errentarako LHE eta Gazte Basic Income (GAZTEBI) proiektua .....</b>	<b>8</b>
<b>6.-“Reflexiones éticas desde el ámbito sociosanitario” liburuaren argitalpena.....</b>	<b>9</b>

# DEKANOAREN AGURRA

Bukatzeaz daude ikasturte akademiko honetako eskolak, eta ikasturtea bera gauzatzea Fakultateko kide guztion artean lortu dugun erronka bat dela uste dut. Horrexegatik, aitortu eta eskertu egin nahi dut, beren-beregi, kide guztiek erakutsitako erantzukizuna eta lankidetzarako jarrera, COVID-19ak eragindako une zail hauetan. Halaber, dekanok karguan egon naizen agintaldi honen amaieran, ikastegiko hainbat zuzendaritza taldetan nirekin batera lanean ibili direnak ere ekarri nahi ditut gogora, beren borondateari eta zuzentasunari esker, helburuen zati handi bat betetzea lortu baitugu denon artean. Zuzendaritza eta kudeaketa guri dagokigu unibertsitate publikoan, eta uste dut garrantzitsua dela hori behar bezala baloratzea. Alabaina, orain etorkizun hurbilari begiratu behar diogu. Horregatik, buletin honetan, niri neuri egindako elkarrizketaz gain, aurkeztu den dekanogai bakarrari egindako elkarrizketa ere badago, besteak beste. Bertan, bere proiektuari buruz hitz egiten du. Horrez gain, datorren ikasturtean eskainiko diren graduondoko berriei eta gure Fakultateko zenbait kide UPV/EHUko beste ikertzaile batzuekin batera egiten ari garen ikerketa proiektu bati buruzko informazioa ere aurkituko duzu hemen. Azkenik, buletin honi ekarpenak egiten jarraitzera animatzen zaitut: proposatu hobekuntzak edo hurrengo argitalpenetarako edukiak. Horren harira, nire esker ona adierazten diot Amaia Inzari buletin hau egin eta koordinatzeko egindako lanagatik.

**Angel Elías Ortega**

## 1.-Angel Elías Ortega dekanuari elkarrizketa

**Elkarren atzeko 12 urtez baino gehiagoz izan zara zuzendari, lehenik Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan eta gero, azken 5 urteotan, gure Fakultatean. Zein bi sentimendurekin utziko duzu kargua?**

Esker ona eta ilusioa. Esker ona denbora honetan zehar gure ikastegia osatu dugun eta osatzen jarraitzen dugun komunitatearekiko, batez ere lehenik zuzendaritzan, eta gero dekanotzan, nirekin erantzukizunak partekatu dituztenekiko. Ilusioa erronka handiei aurre egiteko eta pertsona asko ezagutu eta haiekin lankidetzan aritzeko aukera eman didalako; horrek izugarri motibatua nau, eta, zalantzarik gabe, hazten jarraitu dut eta zoriontsu izan naiz horri esker.

**Nola baloratzen duzu urte hauetan guztietan egindako kudeaketa?**

Xehetasunetan sartu gabe, hori sakonki aztertzen duten zenbait dokumentu daudelako, besteak beste, egungo dekanotza taldeak azken 4 urteotan egindako lanaren balantzea, positiboa dela esango nuke. Txosten hori berriki argitaratu da Fakultateko webgunean. Gizartean eta gure Fakultatean aldaketa handiak egon dira, aurretik zeuden bi unibertsitate eskolak batuta sortu baitzen. Horrez gain, 2008 bukaeran hasi eta oraindik ere COVID-19aren pandemiarekin pairatzen ari garen krisialdiari egin diogu aurre. Halaber, uste dut behar bezala erantzun diegula etorri zaizkigun erronka handiei eta gai izan garela gure gizarteari zerbitzu ona ematen jarraitzeko. Eta hori guztia berdintasunaren eta solidaritatearen balioak aldarrikatuz, UPV/EHUren beraren leloa ***Eman ta zabal zazu*** eta gure ikastegiarena ***Berdintasunaren alde eta aberastasunaren banaketa zuzen baten alde*** geure eginez. Horri esker, ***To Share Begiratokia. Aberastasunaren banaketa zuzen baten alde*** sortu eta koordinatu ahal izan dugu; bertan 25 euskal erakunde garrantzitsuk hartzen dute parte.

**Zer deritzozu dekanotza talde berriari?**

Uste dut aurkeztu den dekanogai bakarrak, Amaia Inzak, gaitasun eta ardura handiak dituela erakutsi duela bere ibilbide profesional osoan zehar. Gainera, esperientzia eta ilusioa duen talde bat du berarekin; taldekide guztiak ezagutzen ditut, eta estimu handia diet. Horregatik, erabat optimista naiz berehalako etorkizunari dagokionez. Hauteskunde programan jasota dagoen bezalaxe, erronka berriei egin beharko diete aurre, aurretiaz lortutakoak finkatzeaz gain.

**Dekano kargua uzten duzunean, zein izango da zure jarduera profesional nagusia?**


Erretiroa hartu aurretik, gutxienez beste urtebetez egongo naiz II lanetan, irakaskuntzan eta ikerketan. Zehazki, denbora gehiago izango dut ***Gaztebi*** ikerketa proiektua kudeatzeko. Proiektuaren helburua, hain zuzen, galdera honi erantzutea da: Ahalbidetzen al du baldintzarik gabeko oinarritzko errenta batek

gazteek beren bizitza proiektuari baldintza hobekoetan aurre egitea? Ildo horretan, UPV/EHU ikasten ari diren edo berriki egin duten gazteen iritzia ezagutu nahi dugu, eta, ahal izanez gero, Europako beste unibertsitate batzuetako erantzunekin alderatu.

[Itzuli](#)

## **2.-Fakultateko berezko titulazio berriak: Gainbegiratzea Gizarte Ekintza Testuinguruetan eta Generoa, Maskulinitateak eta Gizarte Ekintza**

### **GAINBEGIRATZEA GIZARTE EKINTZA TESTUINGURUETAN**



UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko Arabako Gizarte Langintza Atala da titulu horren arduraduna, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Langintzako hiru Elkargo Ofizialen (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta finantza erakundeen babes du.

Ikuskapen profesionalari buruzko prestakuntza ziurtatua eskaintzen du, gizarte-ekintzaren hainbat eremutan adierazitako premiari erantzunez. Garrantzitsua da pertsonekin lan egiten duten arlo psiko-sozialeko, soziosanitarioko eta soziohezitzaileko profesionalentzat.

Haren helburu nagusia gainbegirale rol profesionalari buruzko prestakuntza ematea da, eta, horrela, praktika hori esku-hartze sozialean txertatzea, lan-eremuetan ezarriko duten eta praxi profesionala eta gizarte-arreta hobetuko duten proposamenak sortuz.

Graduondokoa erdi-presentziala da, eta astean behin online mintegiak eskaintzen ditu, emandako gaien adituak diren irakasle akademikoek eta profesionalak emanak. Era berean, ikaskuntza-espazio esanguratsuak eskaintzen ditu, gainbegiratze-arloko hileko entrenamendu-saioen bidez.

### **GENEROA, MASKULINITATEAK ETA GIZARTE EKINTZA**

Graduondoko honen helburu orokorra esku-hartze sozialeko profesional genero-ikuspegian trebatzea da, eta zehazki, maskulinitateen dimentsioan, gizonekin lan egiteari begira, bai politika publikoan, bai entitate sozialetan, bai lan-inguruetan.

Gaur egun dauden desberdintasun-egoerak erakusten dituzten emakumeen eta gizonen egoeren diagnostiko batera hurbiltzea da helburua; eta egoera horien arrazoi batzuk aztertuko dira, bereziki azpimarratuz maskulinitate hegemonikoaren mekanismoak, gizon batzuen botereari eta pribilegioei eusteko.



Ezagutza eguneratu eta zorrotzak emango dira maskulinitatearen eraikuntza sozialari buruzko eztabaidei eta feminismoekin duten harremanari buruz.

Genero-ikuspegitik gizonekin esku-hartze soziala posible eta beharrezkoa den espazioen inguruko hausnarketa sustatuko da, munduko hainbat lekutan eta kultura-testuingurutan garatutako ikuspegi eta metodologietara hurbilduz. Arreta berezia eskainiko zaie indarkeria matxistak prebenitzeko estrategiei. [Itzuli](#)

### 3.-Jardunaldiak eta hitzaldiak Fakultatean

Otsailaren 19an egin ziren Campus Bizia Lab (UPV/EHU) ekimenak sustatutako "EHU onGIZARTE" proiektuaren esparruan antolatu diren **Elikadura jokabidearen nahasmenduei (EJN) buruzko sentsibilizazio eta prebentzio jardunaldiak**. Proiektuak ikasleen ondoez psikosozialeko egoeren eta arreta psikosozialeko premien ezagutza eta ikusgaitasuna sustatu nahi du, egoera horien prebentzian, detekzioan eta esku hartze komunitarioan laguntzeko, unibertsitate komunitatearen ongizate psikosozialean eragingo duten proposamenen eta jardueren bitartez. Hitzaldi markoak: Elikadura jokabide nahasmenduen prebentzioa, detekzioa eta esku hartze psikosoziala. Balioek gorputzarekiko duten eragina. Epigrafe horren pean, honako hitzaldi hauek egin ziren: *"Osasuna, edertasuna, sare sozialak eta elikadura jokabidearen nahasmendua* (Edgar Ilg, psikologoa. ACABE) eta *"Dieta kultura, edertasun kanonak eta gordofobia. Lodian aktibismotik egindako ekarpenak"* (Irati García, gizarte langilea).

Lehen atal horretan laugarren mailako Alba Campmany ikasleak egin zituen moderatzaile lanak. Ondoren, Elikadura jokabidearen nahasmenduak ikusaraztearen eta esku hartze psikosozialaren inguruko perspektibak izeneko mahai ingurua egin zen. Bertan, Noelia Olmo psikiatrak, Chus Domínguez Gasteizko Santiago Ospitaleko Elikadura Nahasmenduen Unitateko psikologo klinikoak eta elikadura nahasmenduen gorabeherei aurre egin zien Elsa Fernándezek hartu zuten parte. Laugarren mailako ikasle Olivia Fernándezek egin zituen moderatzaile lanak. Hausnarketa bateraturako gunean elkarrekin gogoeta egin eta gero, Campus Bizia Lab (UPV/EHU) ekimenak sustatutako "EHU Ongizate psikosoziala: Ondoez psikosozialaren prebentzio komunitarioa unibertsitatean" proiektuan parte hartzen duten Gizarte Langintzako laugarren mailako Karla Álvarez, Olivia Fernández eta Alba Campmany ikasleek ondorioak atera eta amaiera eman zioten jardunaldiari.

Martxoan **Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errentari** buruzko hainbat **mintegi** egin ziren elkarren atzeko lau ostegunetan. Lehen mintegian, galdera hau egin zen: Zer da Oinarrizko Errenta? Oinarrizko errenten abantailak baldintzatutako gutxieneko errenten mugen aldean. Bigarrenean, honako gai hau jorratu zen: Lan merkatuaren bilakaera, ekonomia sozial eta solidarioa eta

Oinarrizko Errenta: enpleguaren banaketa, lana ikusaraztea. Hirugarren osteguneko mintegiak izenburu hau izan zuen: Oinarrizko Errenta Giza Eskubideen, Garapen Jasangarriko Helburuen eta gizarte mugimenduen esparruan. Laugarren eta azken mintegiak honako hau izan zuen hizpide: Oinarrizko Errenta, etorkizun ekonomiko eta sozialerako neurri bat: proiektu pilotuak eta XXI. mendeko erronkak.

2020-2021 ikasturtean hasi ziren **Mintegi profesionalekin** jarraitzeko, batez ere Gizarte Langintzako Graduko laugarren mailako ikasleei zuzendutako hainbat hitzaldi antolatu dira. Urtarrilean, *Ekintza soziala prostituzioaren esparruan* hitzaldia eman zuten Arabako Hiesaren aurkako Batzordeko Nahikari Programako Claudia Lissette Martínez Pérez gizarte langileak eta Edurne Calvo del Pozo eta Sandra Camarera Casado Gizarterako Elkarteko presidente eta gizarte langileak. Otsailean, 6. mintegi profesionala eman zuen Teresa Aragonés gizarte langile eta begiraleak: *Gizarte Langintzako gainbegiraketa*. Apirilean, gure Fakultateko irakasle Rakel Oionen txanda izan zen, eta *Gizarte Langintzarako ebaluazioa* izan zuen hizpide. Azkenik, 7. mintegian ECODES, Ecología y Desarrollo fundazioko soziologo Charles Castro Lampónnek hitzaldi hau eman zuen: Inpaktu soziala ebaluatzea eta neurtzea SROI metodologiaren bitartez.

[Itzuli](#)

## 4.-Fakultateak BerrAktibatu+ programan parte hartzea



Berraktibatu+, ingurumenaren aldeko balioen inguruan kontzientziatu nahi duen programaren barruan, 2020-21 ikasturterako Fakultateko Arabako ekimena, paperaren inguruan izan da. Paperak bigarren bizitza bat eduki dezakeela zabaltea izan da helburu nagusia. **Pentsatzen dut...beraz birziklatzen dut** lelopean bi kutxa jarri dira zentroko hallean, alde batetik bakarrik erabilitako folioak uzteko, eta bestean, birziklatu nahi den paperarentzat. Berrerabili daitezkeen 1700 folio lortu dira, eta 27 koaderno egin dira. Ondoren, erabili nahi duentzako eskuragarri utzi dira. Bestalde, paperaren erabileran ohiturak aldatu diren ikusteko, eta ingurumenaren inpaktu positiboa eduki dezaketen ideiak batzeko inkestak egin dira ekimenaren hasieran zein bukaeran. Bietan parte hartu dutenen artean, ikas materiala erosteko txartela bat zozketatu da.

Fakultateko egoitzan, programaren helburua plastikozko botilen eta uraren kontsumoari buruzko ohiturak aztertzea eta mugikortasun jasangarria bultzatzea izan da. Horretarako, talde ekintzaileak plastikozko botilen kontsumoa, uraren kontsumoa eta mugikortasunaren inguruko ohiturak zeintzuk diren jakiteko lehenengo ikuskaritza egin du. Emaiza bezala, esan beharra dago ur botilen kontsumoan ez dela gorabehera handirik egon, hamar botilakoa izan baita, astero ezartzen diren 144 botila direla kontuan izanda. Beste ataletan, campusean garraioa hobetzeko proposamenak Sergio Seoane alorreko zuzendariari helarazi zaizkio.

Itzuli



## 5.-EAEko oinarrizko errentarako LHE eta Gazte Basic Income (GAZTEBI) proiektua

Urte batzuk joan dira dagoeneko Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta pobrezari aurre egin eta baldintza duinetan bizitzeko eskubide unibertsala bermatzeko proposamen ekonomiko alternatibo gisa planteatu zenetik. Alabaina, COVID-19ak eragindako pandemiaren azken aldi honetan handitu da asko neurri horrekiko interes soziala; izan ere, agerian geratu da, inoiz baino gehiago, ezinbestekoa dela diru sarrerak bermatuta edukitzea, lan merkatuari eragiten dioten inguruabarrak gorabehera.

Horren adibide da, esaterako, [Europako Herritarren Ekimena](#). Ekimen horren baitan, sinadurak biltzen ari dira Europar Batasuneko kide diren herrialdeetan Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta ezar dadila eskatzeko. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) martxan jarri den [Legegintzako Herri Ekimena](#) ere badago.

Hain zuzen, legegintzako herri ekimen (LHE) horren helburua da Eusko Jaurlaritzan Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errentaren (BGOE) lege proiektua aurkeztea, uste baita horretarako eskubidea dutela EAEko biztanle guztiek. Zehazki, hilabeteko diruzko prestazio bat da, herritarrei beren oinarrizko beharrianak asebetetzeko aukera emango diena. Alabaina, ez du inolako kontraprestaziorik eta ez du zerikusirik lan merkatuan egotearekin ala ez; gauzak horrela, bateragarria da edozein soldata edo ordaindutakoaren araberako prestazioarekin.

Honako hauek dira BGOEren oinarrizko printzipioak: a) Prestazio ekonomiko unibertsala da. b) Indibiduala da. c) Ez da diru sarreren edo errenten araberakoa, ezta ondarearen araberakoa ere, izan norberarena edo familiarrena, eta ez dio kalterik egiten diru sarrera edo ondare horiengatik dagokion zerga araudian ezarritako zergak ordaindu behar izateari edo BGOEk ordaindutakoaren araberakoak ez diren beste prestazio batzuk ordezkatzeari.

BGOE hori jasotzeko eskubide subjektiboa EAEn gutxienez 3 hilabetez bizi izan diren guztiei aitortzen zaie. Gutxienez hilean 900 €-koa izan behar du helduen eta emantzipatutako 18 urtetik beherakoen kasuan; erabakitako kopuruaren % 30ekoa (kasu honetan, 270 €-koa) interesduna 14 urtetik beherakoa bada eta % 50ekoa (kasu honetan, 450 €-ekoa) baldin eta 13 eta 18 urte bitartean izanik, adin txikikoa emantzipatuta ez badago. Egungo etxebizitza legeriak etxebizitza duina izateko eskubide subjektiboa bermatzen ez duen bitartean, bermatu egingo da BGOE hau bateragarria izango dela herritarrei batez besteko alokairua ordaintzeko aukera emango dien ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioekin, Eusko Jaurlaritzak ezarritako baremoen arabera.

Ildo beretik, UPV/EHUren [GAZTEBI](#) proiektu estrategikoak galdera honi erantzun nahi dio: ahalbidetzen al du baldintzarik gabeko oinarrizko errenta batek gazteek beren bizitza proiektuari baldintza hobetoagoetan aurre egitea? Ildo horretan, UPV/EHU n ikasten ari diren edo berriki egin duten gazteen iritzia ezagutu nahi du, eta, ahal izanez gero, Europako beste unibertsitate batzuetako erantzunekin alderatu.

Banakako galdetegia eta *focus group* direlakoan galdetegia egiteko, ikerketa teoriko bat egingo da oinarrizko errenta batek gazteriarik ikuspegi sozial eta ekonomikotik nola eragingo dion jakiteko. Horretarako, bilerak egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko eragile publiko eta pribatuekin, bai eta Europako ikertzaileekin ere. Era berean, proiektuaren ondorioak atera aurretik, eragile horiekin partekatuko dira inkesten emaitzak.

Proiektua 2021ean ari da gauzatzen, Europako beste bi proiektuekin ere zerikusia duen arren. Bertan, UPV/EHUko eta gure fakultateko hainbat ikertzaile ari dira lanean, baita 3 doktoregai gazte ere. [Itzuli](#)

## 6.-“Reflexiones éticas desde el ámbito sociosanitario” liburuaren argitalpena

Fakultateko Etika Soziosanitarioko Unibertsitateko Espezialistaren Berezko Tituluaren lehen promozioko (2018-19) graduondoko amaierako lanak biltzen dituen liburua argitaratu da.

Bertan, etikaren ikuspegitik eta gogoetaren eta ikerketaren bitartez erantzun diete ikasleek beren lanbidean aurkitu dituzten kasu zehatzetatik, gogoeta teorikoetatik eta berezko erronketatik eratorritako kezkei. Horrek guztiak



erakusten du ezinbestekoa dela gizarte eta medikuntza zientzietan etika aplikatuaren ikuspegia txertatzea, interperlatu egiten gaituen eta esparru sozialean, sanitarioan eta soziosanitarioan egiten diren esku hartze profesionalak hobetzeko eta egokitzeko exijitzen digun gizarte eraldaketa bat dagoelako.

[Itzuli](#)